



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL HILERRIETAKO (POLLOE, ALTZA ETA IGELDO) PANTEOIAK GARBITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN ORRIA (ENPLEGU-ZENTRO BEREZIENTZAKO BAINO EZ).

1. Kontratuaren xedea

Orri hauetan eta Preskripzio Teknikoen Orrian xedatutakoaren arabera, Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzua ematea izango da kontratuaren xedea.

Hala, kontratuan honako prestazioak sartuko dira:

- a) Gertakizun jakin batengatik, panteoiaren garbiketa puntuala egitea.
- b) Panteoia uneoro egoera onean edukitzeko, aldian behin garbitzea.

Bi garbiketa-zerbitzu horietan sartuko da, hala ere, igeltserotza, margotze, errementaritza eta hilerrietako jarduerarekin lotutako bestelako lanei eragiten dien mantentze-zerbitzua.

Kontratistak gutxienez lau ordu eman beharko ditu panteoiaren garbiketa puntual bakoitzean, eta panteoiaren aldizkako garbiketa bakoitzean. Horixe da, izan ere, panteoia behar bezala garbitzeko behar den gutxieneko denbora.

2. Entitate kontratzailea eta Kontratazio Organoa

Entitate kontratzailea DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SA da (aurrerantzean, POLLOE).

Kontratazio Organoa zuzendari gerenteak eta POLLOEko Administrazio Kontseiluko presidentek osatzen dute, eta bien adostasuna beharko da.

3. Kontratuko dokumentazioa

Esleipenaren ondoren sinatuko den kontratuaz gain, kontratuko dokumentu gisa hartuko dira Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orri hau eta Preskripzio Teknikoen Orria, bai eta esleipendunak egiten duen azken eskaintza ere.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, haiekin ados dagoela egiaztatzeko, kontratua sinatzeko egintzan.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

4. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena urtebetekoa (1) izango da, kontratu hori sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

Kontratua urtero luzatu ahal izango du Kontratazio Organoak, bi urtez gehienez, eta horretarako, POLLOEk jakinarazpen frogagarria egin beharko du indarrean den kontratuaren iraupen-eparean azken hiruhilekoaren barruan, eta kontratista behartuta egongo da kontratua betetzera eta kontratua indarrean den bitartean hura arautzen duten Orriak betetzera, luzapenak barne.

5. Lizitaziorako gehieneko unitate-prezioak eta kontratuaren balio estimatua

Garbiketaren prezioa ordaintzeko, kontratistaren langileek POLLOEk eskatutako panteoien garbiketak egiten zenbat ordu eman duten zenbatuko da, eta ordu horiek behar bezala justifikatuta egon beharko dute, POLLOEren oniritziarekin.

Horretarako, lizitaziorako gehieneko unitate-prezioak hauek izango dira:

- Panteoiaren garbiketa puntuala: 25 euro orduko (BEZ sartu gabe).
- Panteoiaren aldizkako garbiketa: 21,50 euro orduko (BEZ sartu gabe).

Ez da onartuko gehieneko unitate-prezio horiek gainditzen dituen proposamenik.

Unitate-prezio horiek murriztu egin ahal izango dira lizitatzailleek aurkezten dituzten proposamen ekonomikoetan.

Lizitatzailleek eskaintzen dituzten unitate-prezioetan sartuta egon beharko dute zerbitzua emateko behar-beharrezkoak diren kontzeptu guztiak (1. Klausulako azken paragrafoan deskribatutako mantentze-lanak barne) eta langileei dagozkien gastu guztiak (hots, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta ordainsari bereziak, baja edo gaixotasunengatiko ordezkapenak, banakako istripuetarako aseguruak eta abar) bai eta zerbitzua emateak ekar ditzakeen gainerako tasa ofizial eta zergak ere, Balio Erantsiaren Zerga izan ezik, hori partida bereizi batean aurkeztuko baitute lizitatzailleek.

Kontratuaren balio estimatua, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateratua (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintza Errege Dekretuko 88. artikuluan aurreikusten denaren eraginetarako, EHUN ETA LAUROGEI MILA (180.000) eurokoa da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

Balio estimatu hori kalkulatzeko, SPKLTBko 88.5.a) artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan, hots, aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balio erreala kontuan hartu da, eta



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

kontratuaren iraupen osoa konputatu da, hots, urtebete, egin litezkeen urtebeteko bi luzapenak gehituta.

6. Prezioa ordaintzea

Kontratatik hileroko fakturatuko ditu (hilabete natural bakoitzean) panteoien garbiketa-zerbitzuak.

POLLOEK enpresa kontratistari garbiketa puntual eta aldizkako horien truke ordaindu beharreko prezioa kalkulatzeko, kontratatik eskaintako unitate-prezioak biderkatu egingo dira hilabete horretan kontratistaren langileek zerbitzuan emandako orduekin.

Enpresa kontratatik hurrengo hilabeteko lehen zazpi egun naturalen barruan bidali beharko du hileroko faktura.

Kontratistaren langileek panteoien garbiketa puntual eta aldizkakoak egiten emandako orduak justifikatu egin beharko ditu kontratatik, eta hilabeteko fakturekin batera, hilabete bakoitzean emandako zerbitzu espezifikoaren xehetasunak aurkeztu beharko ditu; xehetasun horietan agertuko dira zein zerbitzu espezifiko eskaini diren, eta zerbitzu espezifiko bakoitzari atxikitako profesional bakoitzak zenbat ordu eman dituen. Gainera, POLLOEK hala eskatzen badu, kontratatik informazio zehatzagoa eskaini beharko du, zerbitzu espezifiko bat eskaintzeko egindako lan zehatzen inguruan.

Hala, kontratua indarrean egon bitartean eman eta justifikatzen diren panteoien garbiketa-zerbitzuek bakarrik sortuko dituzte betebeharrak ekonomikoak POLLOErentzako.

POLLOEK hilabete bakoitzean emandako zerbitzuen prezioa ordainduko du zerbitzuak eman diren hilabetea amaitzen denetik hasita 60 eguneko epean, betiere faktura adierazitako epean igorri bada, eta POLLOEren oniritzia jaso badu.

Orri hauetan aurreikusten den kontratuaren xedean sartzen ez diren lan edo zerbitzuak ez dira ordainduko, edo POLLOEK alde aurretik eskatutako lanak ez badira.

7. Prezioak berrikustea

Eskaintako unitate-prezioa urtero berrikusi ahal izango da, urteroko urtarilaren lehen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumoko Prezioen Indizeak edo haren ordezkari indizeak duen aldakuntza ezarriko zaio, urte naturala kontuan hartuta.

Hala baldin badagokio, lehen berrikuspena 2014an egingo da, eta esleipendunak eskaintako unitate-prezioa hartuko da oinarri gisa. Hurrengo urteetarako, aurreko berrikuspenetik sortutako prezioa hartuko da.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

8. Kontratua esleitzeko prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleitu da, eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatuileari esleitu zaio, Orri hauetako 12. Klausulan ezarritako balioespen-irizpideekin bat etorrituz.

9. Kontratatzeko ahalmena

Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural edo juridiko guztiek, espainiarrak zein atzerritarrak izan, jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeke debekurik ez badute, eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute, Orri hauetan ezarritakoari jarraituz.

Eragin horietarako, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuko Bosgarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorrituz, lizitazio honetan **Enplegu Zentro Berezi** gisa sailkatuta dauden enpresa lizitatuileek baino ezingo dute parte hartu, betiere dagokion Autonomia Erkidegoko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta badaude.

Halaber, lizitatuileek kontratuaren xede diren prestazioak emateko eska daitekeen gaitze profesionala edo enpresa-gaitzea eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahal izango dira, baldin eta beren Estatutu edo eraketa-arauen arabera kontratuko prestazioak berezko zaizkien xede, helburu edo alorrekoak badira.

Nolanahi ere, POLLOErekin kontratuak egiteko gaitasuna izango dute Europar Batasuneko Estatu kideetakoak diren Espainiaz kanpoko enpresek, beren Estatuetako legediaren arabera, hizpide dugun prestazioa emateko gaituta badaude. Alor horretan, SPKLTBko 58. artikuluan aipatutakoa ezarri ahal izango da.

Zerbitzua eman ahal izateko, enpresa horien Estatuetako legediak baimen berezi bat edo antolakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Gainera, Europar Batasunekoak ez diren Estatuetako pertsona fisiko edo juridikoen egiaztatu egin beharko dute enpresa atzerritarraren jatorrizko Estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek bere Administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateen parekoekin kontratuak egiterakoan antzeko moduan parte hartu ahal izatea. Hori egiaztatzeke, Espainiaren Misio Diplomatiko Egonkorra horri buruz igorritako txostena erantsi beharko zaio aurkezten den dokumentazioari.

POLLOErekin kontratuak egin ahal izango dituzte horretarako aldi baterako era litezkeen enpresari-elkarteek, eta horretarako ez da beharrezkoa elkarte horiek eskritura publiko bidez



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

formalizatzea, kontratua haiei esleitu arte. Alor horretan, SPKLTBko 59. artikuluan xedatutakoa ezarri ahal izango da.

Enplegu Zentro Berezi izan beharko duten lizitatzailerik guztiek egiaztatu egin beharko dute honako finantza- eta ekonomia-kaudimena dutela, bai eta kaudimen tekniko edo profesionala ere:

- Azken hiru ekitaldietako bakoitzean (2009, 2010, 2011), gutxienez, 400.000 euroko negozio-bolumena eduki beharko dute, kontratuaren xede diren zerbitzuen alorrean.

Lizitatzailerik, beren kaudimenaren egiaztapena osatzeko, kontratuaren exekuzioari gutxienez honako giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa hartu beharko dute:

- Panteoiak garbitu eta mantentzean eskarmentua duten hiru pertsona.
- Koordinazio- eta asistentzia-lanak egingo dituen arduradun bat, zerbitzua behar bezala emateko behar diren neurriak hartzeko adina gaitasun izango duena.

10. Publizitatea

Lizitazioa probintziako egunkari batean iragarriko da, eta POLLOEko kontratatzailearen profilean.

Esleipena POLLOEren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Profil horretara sartzeko, web orri honen bitartez egin ahal izango da: www.polloe.org.

Iragarkiaren zenbatekoa enpresa esleipendunak ordaindu beharko du.

11. Eskaintzak eta dokumentazioa aurkeztea

Lizitatzailerik proposamen bat aurkezten badu, horrek esan nahi du hark Orri hauek eta Preskripzio Teknikoen Orriak onartzen dituela, oso-osorik eta inolako salbuespenik gabe, eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adieraziz erantzukizuneko deklarazioa egiten duela.

Orri hauek eta Preskripzio Teknikoen Orriak ikusteko, kontratatzailearen profilaren bitartez sartu ahal izango da.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte **eskura**, POLLOEren bulegoetan (Polloe Plaza, 2. 20012 Donostia). Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango dute, azken lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik hasita. Hiru gutun-azal horietan aurrerago azalduko dugun dokumentazioa sartuko dute. Gutun-azal horietan adierazi beharko da enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

sinatzen duen, telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoko helbidea. Hori guztia modu irakurterrazean idatzi beharko da.

Gutun-azal bakoitzean inskripzio hauxe jarri beharko da: *“Prozedura irekiaren bitartez, Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzuak kontratatzeko egingo den lizitazioan parte hartzeko eskaintza”*, eta behar bezala zenbakituta egon beharko dute (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokion moduan).

Gutun-azal horietako bakoitzean jarraian aipatzen diren dokumentuak sartu beharko dira:

1. Gutun-azala: “Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena”

Hurrengo dokumentuak edukiko ditu:

1. Enpresariaren eta hala badagokio, haren ordezkariaren pertsonalitatea eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak:

- Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze-eskritura edo dokumentua, Estatutuak edo eratze-egintza aurkeztu beharko da. Horietan adierazi beharko da haien jarduera nola arautzen den, eta enpresari horiek behar bezala izena emanda egon beharko dute dagokien Erregistro Publikoan, zer nolako pertsona juridikoak diren kontuan hartuta.
- Europar Batasuneko Estatu kideetakoak diren Espainiaz kanpoko enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, haien Estatuetak legediaren arabera dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo bestela, ezar daitezkeen Europako Erkidegoaren xedapenen arabera zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute.
- Gainerako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, kasu bakoitzari dagokion Estatu Espainiako Misio Diplomatiko Egonkorra edo enpresaren egoitzaren lurraldeari dagokion Kotsularen Bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko da. Txosten horren bitartez, egiaztatu beharko dute enpresa atzerritarren jatorrizko Estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek bere Administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateen parekoekin kontratuak egiterakoan antzeko moduan parte hartu ahal izatea.
- Pertsona fisikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko da, edo dagokion Estatu dokumentu baliokidea.
- Beste norbaiten izenean agertzen direnek edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute, eta horretarako nahikoa botere dutela egiaztatuko dute. Pertsona juridiko bat ordezkatzeko badute, botereak inskribatuta egon beharko du Merkataritza Erregistroan, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduko 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hala eskatzen bada.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- Aldi baterako elkarte batean bat eginda parte hartu nahi duten enpresariak elkarte hori osatzen dutenen izenak eta egoera adierazi beharko dituzte, eta adierazi beharko dute esleipendun suertatzekotan aldi baterako elkarketa gisa modu formalean eratzeko konpromisoa hartzen dutela. Aldi baterako elkarte batean parte hartzen duten enpresariak behartuta egongo dira modu solidarioan, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ahaldun horrek behar adina botere izango du kontratua iraungi arte kontratu horretatik eratorzen diren eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko. Hala ere, kopuru adierazgarriak kobratu eta ordaindu ahal izateko, botere mankomunatuak eman ahal izango dituzte.

Lizitatuak, eskatutako dokumentuak aurkezteko, jatorrizko dokumentuak aurkeztu ahal izango dituzte, edo behar bezala konpultatu edo autentifikatutako kopiak.

2. Lizitatuak ez duela SPKLTBko 60.1 artikuluan ezartzen diren kontratatze debekuetako bat ere adierazteko erantzukizuneko deklarazioa, IV. Eranskineko ereduaren arabera.

Deklarazio horretan, adierazpen bat txertatu beharko da, azalduz lizitatuak indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela. Halaber, ekonomikoki onuragarria den eskaintza aurkeztu duen lizitatuak eskakizun horren justifikazio baliokidea aurkeztu beharko du, POLLOEK horretarako egindako eskaria jaso eta hurrengo egunetik hasita, hamar egun baliaduneko epean.

3. Enpresa lizitatuak Enplegu Zentro Berezien kalifikazioa dutela egiaztatze dokumentuak. Halaber, dagokion Erkidegoko Erregistroan izena emanda dutela egiaztatze ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte.

4. Enpresariaren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatze ziurtagiriak, 9. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Enpresariaren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala modu honetan egiaztatuko da:

- Kontratuaren xede den zerbitzuaren alorrean azken hiru ekitaldietako bakoitzean izandako negozio-bolumena.
- Azken ekitaldietako bakoitzean (2009, 2010, 2011) kontratuaren xede diren zerbitzuen alorrean egindako lan nagusien zerrenda, eta haien zenbatekoa, datak eta lan horien hartzaileak, publikoak zein pribatuak izan.

5. Kontratuaren exekuzioari gutxienez 9. Klausulan aipatutako giza baliabideak atxikitze konpromisoa.

Izenez identifikatuko dira atxikitako pertsonak, eta zein titulazio duten adieraziko da, zenbat urteko eskarmentua duten eta zein den beren *curriculum vitae*, eskatutako eskarmentua dutela justifikatzeko; halaber, zein lan egin duten azaldu beharko da zehazki, eta zein entitateko egin dituzten.



Polloe

Hileta - Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

6. Enpresa atzerritarrek Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazi beharko dute espresuki, kontratuaren ondorioz zuzenean zein zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako; halaber, lizitatzailerak berez dagokion atzerriko jurisdikzio- eskumenari uko egin beharko dio, kasuari hala badagokio.

7. POLLOEk egingo dituen jakinarazpenak jasotzeko bitarteko lehenetsia aukeratzea, Orri hauei erantsitako II. Eranskineko ereduaren arabera.

Oharra: Kontratisten Erregistro Ofizialaren funtzionamendu-arauak ezartzen dituen 1998ko otsailaren 4ko Aginduak garatzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailerak Erregistroko letradu arduradunak egindako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 1. atalean aipatutako dokumentazioaren orde.

Oharra: POLLOEk beretzat gordetzen du egokitzen jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko eskubidea, edo lizitatzailerak emandako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzekoa.

Oharra: Enpresa horiek aurkezten dituzten dokumentuak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzulita egon beharko dute, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko (aurrerantzean, 1098/2001 ED) 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Gutun-azala: “Proposamen teknikoa”

Hurrengo dokumentuak edukiko ditu:

- a) Alderdi hauei buruzko memoria teknikoa:
 - Emango diren zerbitzuen ezaugarri teknikoak.
 - Enpresak kontratuari atxikitzen dizkion baliabideak, lanabesak, aparatuak, ibilgailu-parkea, ekipoa eta makineria eta haien deskribapena.
- b) 9. Klausulan eskatzen den gutxieneko ekipoaz gain, gehigarri gisa kontratuaren exekuzioari zehazki zein ekipo atxikiko zaion, eta haren deskripzioa; gainera, haren *curriculum vitae*a eta sektorean duen eskarmentua zehaztu beharko dira.
- c) Garbiketa-enpresak eskaini ditzakeen hobekuntzak, Preskripzio Teknikoen Orrian deskribatzen diren zerbitzuaren prestazio eta baldintzei dagokienez.

3. Gutun-azala: “Proposamen ekonomikoa”



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Lizitatuzaileak proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko du, Orri hauetako III. Eranskinean agertzen den ereduari jarraituz.

12. Balioespenerako irizpideak

Hauexek izango dira balioespenerako irizpideak, dagokien ponderazioarekin:

- **Proposamen teknikoa:** 60 puntu gehienez.

• Memoria Teknikoa: 20 puntu gehienez.

Emango diren zerbitzuen ezaugarriak balioetsiko dira. Enpresak kontratuari atxikitzen dizkion baliabide, lanabes, aparatu, ibilgailu-parke, ekipo eta makineriaren kopurua eta egokitasuna ere balioetsiko dira.

• Langileak: 20 puntu gehienez.

9. Klausulan eskatutako gutxieneko ekipoaz gain, kontratuaren exekuzioari gehigarri gisa atxikiko zaion ekipoaren osaera balioetsiko da.

• Hobekuntzak. 20 puntu gehienez.

Preskripzio Teknikoen Orrian deskribatzen diren zerbitzuaren prestazio eta baldintzei dagokienez eskaintzen diren hobekuntzak balioetsiko dira.

- **Proposamen ekonomikoa:** 40 puntu gehienez.

- **Panteoien garbiketa puntualaren prezioa.** 20 puntu gehienez.

Puntuak honelaxe esleituko dira:

$$P = 20 \times \frac{\text{Eskaintza minimoa}}{\text{Lizitatuzailearen eskaintza}}$$

Hauxe esan nahi dute hizkiek:

P= balioetsi den lizitatuzaileak jasotako puntuazioa.

Eskaintza minimoa = onartu den eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

Lizitatuzailearen eskaintza = balioesten den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- **Panteoien aldizkako garbiketaren prezioak.** 20 puntu gehienez.

Puntuak honelaxe esleituko dira:

$$P= 20 \times \frac{\text{Eskaintza minimoa}}{\text{Lizitzailearen eskaintza}}$$

Hauxe esan nahi dute hizkiek:

P= balioetsi den lizitzaileak jasotako puntuazioa.

Eskaintza minimoa = onartu den eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

Lizitzailearen eskaintza = balioesten den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Proporzioz kanpokoa edo ohiz kanpokoa izan daitekeen proposamen bat hautematen bada, hura aurkeztu duen lizitzaileari entzun beharko zaio, eskaintzaren balioespena justifika dezan, eta haren baldintzak zehaztu ditzan.

Eragin horretarako, eskaintzak proportzioz kanpoko edo ezohikotzat joko dira baldin eta ponderazioa egin ondoren lizitazioko gehieneko prezioak baino % 40 edo hortik gorako proportzian txikiagoak badira.

13. Proposamenak irekitzea

POLLOEko teknikariek aldeztu aurretik kalifikatuko dute epe eta forma egokian aurkeztutako 1. gutun-azalean (“Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena”) dagoen dokumentazioa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo ez esateak hautematen badituzte, hiru egun balioduneko epea eman ahal izango dute, lizitzaileak zuzen ditzan.

Jarraian, 2. gutun-azala irekiko da, proposamen teknikoak jasotzen duena, hura aztertu eta balioesteko.

3. gutun-azalean dauden proposamen ekonomikoak irekitzean, jendaurrean egiaztatuko da, Donostian dauden POLLOEren bulegoetan (Polloe Plaza, 2). Kontratzailearen profilean argitaratuko da proposamen horien irekiera-ekitaldi publikoa zein egun eta orduan egingo den.

Proposamen ekonomikoen irekiera-ekitaldi publikoa hasterakoan, bertaratutako lizitzaileei proposamen teknikoen balioespenean lortu duten emaitza emango zaie.

POLLOEko teknikariek baztertu egingo dituzte 1098/2001 EDko 84. artikuluan aurreikusitako kausetakoren batean aurkitzen diren proposamenak.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoa amaitutakoan, proposamenak aztertu eta balioetsiko dira.

POLLOEko teknikariek Kontratazio Organoari aurkeztuko diote aurkeztutako proposamenen zerrenda, proportzioz kanpoko edo ezohikotzat jo direnak alde batera utzita. Proposamenak goitik beherako hurrenkeran sailkatuta aurkeztuko dizkio, 12. Klausulan ezarritako balioespen-irizpideen arabera, eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza identifikatuko dute.

Teknikari horiek, beren proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituzten txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango dituzte.

Teknikariek proposamen bat ekonomikoki onuragarriena dela erabakitzen badute, horrek ez dio lizitatzailerik horri inolako eskubiderik emango POLLOEren aurrean.

14. Kontratuaren esleipena

Kontratazio Organoak, arau orokor gisa, langile teknikoek egindako proposamenari jarraitu beharko dio. Bestela, proposamenari men ez egiteko erabakia arrazoitu beharko du, eta hala badagokio, eskaintzen behin betiko sailkapena egin beharko da.

Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintza egin duen lizitatzailerari eskatu ahal izango dio dokumentazio hau aurkezteko, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar egun baldioduneko epean:

- a) Orri hauetako 16. Klausulan agertzen den behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatu beharko du, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako, alta aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldikoa bada, eta gainerako kasuetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria. Nolanahi ere, zerga horren matrikulan ez duela bajarik eman adierazten duen erantzukizuneko deklarazioa aurkeztu beharko da.

- c) Kontratuari giza baliabide eta baliabide material batzuk atxikitzeko konpromisoa hartu denez, egiaz baliabide horiek badituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- d) Behar denean, enpresen aldi baterako elkartea eratzeko eskritura publikoaren kopia.
- e) Orri hauetako 26. Klausulan eskatzen den aseguru-polizaren kopia.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Eskakizun hori aipatutako epean behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailerak bere eskaintza erretiratu duela, eta kasu horretan hurrengo lizitatzailerari dokumentazio hori bera eskatuko zaio, kontuan hartuta eskaintzak zein hurrenkeratan gelditu diren sailkatuta.

Kontratazio Organoak dokumentazio hori jaso eta hurrengo bost egun baliodunen epean egingo du esleipena, eta proposamenak irekitzen diren egunetik hasita, gehienez bi hilabeteko epean izan beharko du.

Esleipena Kontratazio Organoak erabaki beharko du, arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta lizitatzailerari jakinaraziko zaie, haiek beren proposamenetan adierazitako moduaren bitartez eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Esleipenean zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko zehaztapenak.

15. Kontratua perfektionatu eta formalizatzea

Kontratua formalizatuta perfektionatuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, lizitatzailerak eta esleipendunak esleipenaren berri jasotzen duten egunaren biharamunetik hasita, hamabost egun balioduneko epean gehienez ere.

Hala ere, esleipendunak kontratua eskritura publiko gisa jasotzea eskatu ahal izango du. Kasu horretan, formalizazio-gastuak hark ordaindu beharko ditu.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatzen ez bada, POLLOEK hurrengo lizitatzailerari eskatu ahal izango dio Orri hauetako 14. Klausulan eskatutako dokumentazioa, eta hamar eguneko epea emango dio hura aurkezteko.

16. Berme definitiboa

Kontratuaren esleipendunak, hartutako betebeharrak bete egingo dituela bermatzeko, kontratuaren balio estimatuaren (BEZ kanpoan utzita) % 5eko berme definitiboa eratu beharko du.

Berme hori eratzeko epea hamar egun baliodunekoia izango da, esleipendunak POLLOEren horretarako eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Berme hori eratzeko, SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabili ahal izango da.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Abal gisa aurkeztuz gero, Orri hauetan III. Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera egin beharko da.

Bermea itzultzeko, SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da, bermearen epea igarotakoan, eta kontratistak bere kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

Kontratistari eska dakizkiokeen penalitate edo kalte-ordainak bermetik hartzen badira, kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du, behar den kopurua gehituta, exekuzio-egunetik hasita hamabost egun balioduneko epean. Hala egiten ez badu, kontratuaren suntsiarazpenerako arrazoia izango da.

Kontratua moldatu izanagatik, haren prezioa aldatzen bada, bermea ere egokitu egin beharko da, moldatutako prezio berriarekiko behar duen proportzioa gorde dezan. Hori egiteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, moldaketa-erabakia enpresariari jakinarazi zaion egunetik hasita.

Orri hauetan aurreikusi ez diren alderdietan SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa ezarri ahal izango da.

17. Kontratuaren exekuzioa

- Kontratua exekutatzekoan, kontratistak hartuko ditu bere gain arrisku eta gorabeherak.
- Kontratua exekutatzekoan, klausulak zorrotz bete beharko dira, bai eta Orri hauetan eta Preskripzio Teknikoen Orrian agertzen diren akordioak ere; halaber, esleipendunak aurkeztutako azken eskaintza bete beharko da, kontratatutako zerbitzuek berezko dituzten arau teknikoak, eta kontratua teknikoki interpretatuta POLLOEk kontratistari emango dizkion jarraibideak.
- POLLOEk uneoro kontrolatu, egiaztatu eta ikuskatu ahal izango du, edozein bitarteko baliatuta, kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla, eta kontratuko prestazioak egoki gauzaten direla.
- Kontratistak ezingo ditu oztopatu POLLOEk egin ditzakeen ikuskapen- eta kontrol-lanak.
- Kontratista behartuta egongo da kontratatutako zerbitzuak emateko beharko diren langileei dagokienez lan-alorrean eta Gizarte Segurantzaren indarrean dauden xedapenak betetzera; bereziki, lan-arriskuak prebenitzeari buruzko araudia.

Kontratistaren ardura izango da, halaber, langileek laneko segurtasun, higiene eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzea, eta Kontratazio Organotik etor litekeen funtzionamendu-araudi orokorra errespetatzea.

Langile guztiak kontratistaren mende egongo dira bakarrik, eta kontratistak izango ditu bere enpresari-izaerari dagozkion eskubide eta betebeharrak; hala, POLLOEri ezingo zaio lan-harreman horien edo bestelako betebeharren ondorioz inolako erreklamaziorik ezarri.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Prestazioa ematen lan egiten duten langileekin lotutako ezbeharrak edo erreklamaziorik gertatzen bada (judiziala zein judizioz kanpokoak izan), kontratista izango da erantzule bakarra, berezko langileak zein balizko azpikontratazioetakoak izan, eta POLLOEk ez du kontratistak zuzenean edo zeharka hartu duen lan-erantzukizunik bere gain hartuko (laneko segurtasun, higie eta osasuneko ardura barne), ez eta Gizarte Segurantzakoak edo zerga-alorrekoak ere. Halaber, prestazioak gauzaterakoan gerta litezkeen ezbeharretatik erator litezkeen erantzukizunak kontratistak bakarrik hartuko ditu bere gain.

- Nolanahi ere, kontratista behartuta egongo da lanak behar bezala egiteko behar diren ekipo edo baliabide osagarri guztiak jartzera, eta bere betebeharrak betetzeko behar diren langileak kontratatzea. Langileei dagokienez, lan eta segurtasunaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.
- Kontratu honen xedeak ez du eskatuko ez eragingo POLLOEk datu pertsonalak inola ere erabiltzea.

Hala, kontratua indarrean dagoen bitartean enpresa esleipendunak bere jardueren esparruan datu pertsonalak nolabait tratatzen baditu, bere kontuz eta bere erabakiz egiten duela ulertuko da, tratamendu horren erantzule gisa, eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoak enpresa horri tratamendu horren ondorioz ezartzen dizkion betebeharrak bere gain hartuta.

18. Kontratistaren betebeharrak

Hauek izango dira kontratistaren betebeharrak:

- Kontratuaren betetzea, klausuletan, Orri hauetan eta Preskripzio Teknikoen Orrietan ezarritakoa zorrotz errespetatuta, bai eta Kontratazio Organoak kontratistari ematen dizkion jarraibideak ere.
- Eskaintzan agindutako giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren exekuzioari atxikitzea.
- Jarduera gauzatzeko behar den lizentzia eta baimen oro eskuratzea.
- POLLOEko langileek emandako jarraibideei men egitea eta kontratuko xede diren eginkizunak haiekin koordinatuta gauzatea, haiek uneoro jakinaren gainean edukita.
- Kontratuaren xedea gauzatzeko sor litekeen gastu oro ordaintzea; hala nola indarrean dauden xedapenen arabera zerga-gastuak, tasak eta kargak.
- Orri hauetako 16. Klausularen arabera, berme definitiboa eratzea.
- Kontratututako zerbitzuak emateko beharko diren langileei dagokienez lan-alorrean eta Gizarte Segurantzaren indarrean dauden xedapenak betetzea.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- Orri hauetako 26. Klausulan adierazten den aseguru-poliza izenpetu eta mantentzea.
- Orri hauetako 19. Klausularen arabera, konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra errespetatzea.
- Enpresari bere jardueraren alorratik ezar dakioken bestelako edozein sektore-araudi betetzea.
- Greba-kasuetan, zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatzen ez badira, POLLOEk zerbitzu horiek betetzeko behar diren kontratuak bultzatu ahal izango ditu, eta horien zenbatekoa enpresa esleipendunaren fakturaziotik kenduko da.

Greba-aldian zehar, egiaz emandako zerbitzuen prezioa baino ez da ordainduko.

- Langileak ordezkatzeko, edozein eginkizun betetzen dutela ere, eta eginkizun horrek irauten duen denborak axola gabe, baldin eta beren eginkizunak behar den arduraz eta eraginkortasunaz betetzen ez badituzte, trebatuta ez badaude, beren eginkizuna betetzean arduragabe jokatzeko badute edo kontratuak behar bezala funtzionatzea eragotzi dezaketen ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Horretarako epea hogeita lau ordukoa izango da, POLLOEk horretarako eskaera egiten duenetik hasita. Langileak ordezkatzeko badira POLLOEk ez du inolako erantzukizunik izango, kontratistak langile kaltetuarekiko dituen harremanei dagokienez.
- Langileak falta direnean haiek ordezkatzeko, hala nola gaixotasunengatik bajaran daudenean, oporretan, baimenak edo lizentziak hartzen dituztenean, istripuak gertatzen direnean eta abar, eta kontratatutako zerbitzuak egiaz emango direla bermatzea. Horretarako epea hogeita lau ordukoa izango da.

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrak kontratuko funtsezko betebeharrak izango dira, SPKLTBko 223.f) artikuluan aipatutako eraginetarako, eta horrenbestez, betetzen ez badira, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

19. Konfidentzialtasuna

Orri hauetan esleipenaren publizitateari eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruz xedatutakoari eragin gabe, Kontratazio Organoak ezingo du enpresariak emandako informazioa zabaldu, haiek konfidentzialtzat jo badute; bereziki, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten die betebeharrak horrek.

Kontratistak, bestalde, kontratua exekutatzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baita kontratuan konfidentzialtzat jotzen den informazioarena edo bere izaeratik konfidentzialtzat hartu behar den informazioarena ere.

Konfidentzialtzat hartuko dira, bereziki, kontratistari kontratuaren exekuzioaren ondorioz ematen zaizkion informazio, dokumentu, artxibo edo zehaztapen guztiak, edozein euskarritan egonik ere, eta ezingo dira argitaratu, ez eta hedatu ere.

Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak ez du mugarik izango.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

20. Penalizazioak

Kontratatik, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak gaizki gauzatuko balitu, edo kontratuko beste edozein baldintza beteko ez balu, POLLOEk kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango luke, edo bestela, Orri hauetako 28. Klausulan adierazitako baldintzetan kontratua exekutatzeko jarraitzea. Azken kasuan, sor litezkeen kalte eta galeren kalte-ordainak kendu ahal izateaz gainera, POLLOEk kontratuaren balio estimatuari % 10 kendu ahal izango dio bere alde, eta kopuru horiek metatu egin ahal izango dira.

POLLOEk kontratua exekutatzeko jarraitzea aukeratzen badu, ez-betetzeak irauten duen bitartean edozein unetan erabaki ahal izango du kontratua suntsiaraztea, eta horrek arestian aipatutako eraginak izango ditu.

Penalitateak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik kendu ahal izango dira, eta horietatik hartu ezin badira, berme definitibotik. Eraturako bermea gainditzen duten zenbatekoak, aldiz, erreklamatu egin ahal izango dira.

Nolanahi ere POLLOEk, kontratua suntsiarazi edo exekutatzeko jarraitzea erabakitzen badu ere, bere kabuz erabaki ahal izango du beharrezkotzat jotzen den denboran zehar zerbitzuak hirugarrenen bitartez jasotzen jarraitzea, eta kontratistari ezarriko zaio jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta klausula honetan jasotzen diren gainerako eraginei eragin gabe.

21. Kontratataren erantzukizuna

Kontratuaren exekuziorako egin beharreko lanen ondorioz hirugarrenen kalte-galerak eragiten bazaizkie, kontratatik ordaindu beharko ditu kalte-ordain guztiak.

Kontratista izango da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren erantzulea, emandako prestazio eta zerbitzuena, eta kontratua exekutatzean ahaztutako gauzek, akatsek, metodo desegokiak edo ondorio okerrek POLLOErentzat edo hirugarrenentzat izan ditzaketan ondorio kaltegarriena.

22. Kontratua etetea

POLLOEk kontratua etetea erabakiko balu, edo SPKLTBko 5. ataleko 216. artikuluan xedatutakoa ezartzeagatik etengo balitz (eragin horietarako, ezar daitekeela xedatzen du), Akta bat jasoko da, eta bertan adieraziko da zein gorabeherak eragin duten etetea, eta kontratuaren exekuzioan egitatezko egoera zein den.

Etetea erabaki ondoren, POLLOEk enpresa kontratistari ordainduko dizkio hark egiaz nozitu dituen kalte-galerak.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

23. Kontratua ematea

Kontratuaren ondorioz sortzen diren eskubide eta betebeharrak beste norbaiti emateko, aldez aurretik berariazko baimena jaso beharko da, idatziz, POLLOErengandik, eta hartzaileak Enplegu Zentro Berezi gisa sailkatuta egon beharko du beti, eta dagokion Autonomia Erkidegoko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan izena emanda egon beharko du. Halaber, POLLOErekin kontratuak egiteko eskatzen diren lege-baldintza guztiak eta Orri hauetan eskatzen direnak bete beharko ditu, eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dituela egiaztatu beharko du. Halaber, ezingo du kontratatzeke debekurik izan, eta konpromisoa hartu beharko du esleipendunak eskaintako bitartekoen adskripziorako betebeharra betetzeko. Hori guztia bete beharko da, beste inori ematen zaizkion prestazioei dagokien alor guztietan.

24. Azpikontratazioa

Kontratuko prestazioak azpikontratatzeke, aldez aurretik berariazko baimena jaso beharko da, idatziz, POLLOErengandik, eta azpikontratatistak Enplegu Zentro Berezi gisa sailkatuta egon beharko du beti, eta dagokion Autonomia Erkidegoko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan izena emanda egon beharko du. Halaber, POLLOErekin kontratuak egiteko eskatzen diren lege-baldintza guztiak eta Orri hauetan eskatzen direnak bete beharko ditu, eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dituela egiaztatu beharko du. Halaber, ezingo du kontratatzeke debekurik izan, eta konpromisoa hartu beharko du esleipendunak eskaintako bitartekoen adskripziorako betebeharra betetzeko. Hori guztia bete beharko da, azpikontratitzen diren prestazioei dagokien alor guztietan.

Halaber, lizitazaileek eskaintzetan adierazi ahal izango dute kontratua exekutatzean zein azpikontratazio egitea aurreikusten duten, eta kasu horretan klausula honetako aurreko paragrafoan adierazitakoa bete beharko da.

25. Kontratuaren moldaketak

Kontratazio Organoak kontratua moldatu ahal izango du, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

26. Asegurua

Esleipendunak egiaztatu egin beharko du erantzukizun zibil orokorreko aseguru bat sinatu duela. Aseguru horrek, gutxienez, 300.000 eurokoa izan beharko du ezbehar bakoitzeko (biktima bakoitzeko 150.000 euroko muga izan beharko du), eta kontratuak irauten duen denbora osorako balio beharko du. Esleipendunak bere kabuz egingo du hori, eta berak baino ez du ordainduko.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

27. Bermea jasotzea eta epea

Kontratuko baldintzen arabera eta POLLOE asebeteta egonik, prestazio guztiak amaituta daudenean, kontratistak ulertuko du kontratua beteta dagoela.

POLLOEk erabakiko du kontratistak emandako prestazioak kontratua exekutatu eta betetzeko ezarritako preskripzioetara egokitzen diren eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak ematea eta zerbitzua jasotzerakoan hautemandako akatsak zuzentzea eskatu ahal izango du.

Egindako lanak kontratatutako prestazioetara egokitzen ez badira, eta hori kontratistari egotz dakizkikeen bizio edo akatsen ondorioz bada, POLLOEk lan horiek baztertu ahal izango ditu, eta salbuetsita geratuko da ordaintzetik; hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Urtebeteko berme-epea ezartzen da, jasotzen den egunetik hasita.

Berme-epetan zehar, egindako lanetan bizioak edo akatsak daudela egiaztatuko balitz, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratistari akats horiek zuzen ditzan eskatzeko.

Berme-epea amaituta, POLLOEk ez badu aurreko ataletan aipatzen diren eragozpenik edo salaketarik jarri, kontratista salbuetsita geldituko da garatutako prestazioen erantzukizunetik.

28. Kontratua suntsiaraztea

Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLTBko 223. artikuluko a), b), d), f), g) eta h) hizkietan aurreikusitako arrazoiak –85. artikuluan ezarritakoari eragin gabe– eta, oro har, kontratuko betebeharrak edozein modutan ez betetzea.

Klausula honetan aurreikusten diren suntsiarazpenerako arrazoi guztietan, suntsiarazpena automatikoki gertatuko da, eta betekizun bakarra POLLOEk kontratistari bere erabakia modu frogagarrian jakinaraztea izango da.

Horrek guztiak ez du eragotziko gerora kontratuaren likidazioa egitea, hala badagokio, jarraian ezarriko denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusten diren arrazoiengatik edo legez egokiak izan daitekeen beste edozein arrazoiengatik kontratua suntsitzen bada, hortik sor litezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua egiaz suntsiarazitakoan likidatuko dira, eta dokumentazioa eman ondoren, eta horrek ez du eragotziko POLLOEk haren exekuzioarekin jarraitzea.

Kontratua suntsiarazten den guztietan, kontratistak printzipioz eskubidea izango du egiaz egin dituen lan guztiei dagokien prezioa jasotzeko.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratua kontratistari egotz dakioken edozein arrazoiengatik suntsiarazten bada, kontratuaren balio estimatuaren % 20ri dagokion kopurua eskuratuko du POLLOEk, eta horrez gain, sor litezkeen kalte-galerengatik ordainketak, eta kopuru horiek metatu egin ahal izango dira. Bi kopuru horiek kontratistari ordaintzeko gelditzen den prezioetik kenduko dira, eta prezio hori gainditzen badute, erreklamatu egin ahal izango da.

29. Kontratuaren izaera eta arau erregulatzailleak

Kontratua pribatua da eta, bere prestakuntza eta esleipenari dagokionez, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orri honek eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautzen dute. Horietan aipatzen ez diren alderdietarako, kontuan hartu beharko dira POLLOEren kontrataziorako barne-jarraibideak, SPKLTBaren horretarako ezarritako arauak eta, hala badagokio, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (aurrerantzean, 817/2009 ED) Sektore Publikoko Kontratuaren Legea partzialki garatzen duena, esleitzeko boterea duten baina Herri Administrazio ez diren sektore publikoko entitateek egiten dituzten eta erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuarentako; halaber, SPKLTBaren edo 817/2009 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren aurka egiten ez duen bitartean, 1098/2001 Errege Dekretua ere hartuko da kontuan.

Kontratuaren eragin eta iraungipenari dagokionez, kontratua Orri hauek arautuko dute, Preskripzio Teknikoen Orriek, eta horietan aipatzen ez diren alderdietan, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBaren I. Liburuko V. Tituluan kontratuaren moldaketei buruz ezarritako arauak balio ahal izango dute kontraturako.

Gainera, SPKLTB, 817/2009 ED eta 1098/2001 ED ezarri ahal izango dira Orri hauetan arau horiek berariaz aipatzen diren alor guztietan.

30. Jurisdikzio eskuduna

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du eskumena kontratuaren prestakuntza, esleipena, eragina, betetzea eta iraungipenaren inguruan alderdien artean sor litezkeen eztabaidak argitzeko.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

I. ERANSKINA JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO MODUA AUKERATZEA

..... jaun-andreak, helbidea eta, NAN zenbakia duenak, bere izenean edohelbidea etaNAN edo IFZ zenbakia duen(r)en izenean, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe izanik, Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzua publikitate-dun prozedura negoziatu bidez esleituko dela jakin du, eta lizitazio horretarako, agiri honen bitartez adierazten du hauxe duela lehentasunezko modua DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAK egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko(*):

- Faxez.
- Posta elektronikoz.
- Gutun ziurtatu bidez.

(*) Adierazi zein modu aukeratu den.

Nolanahi ere, jakinarazpenak egiteko, datu hauek balia daitezke:

- Fax-zenbakia:
- Posta elektronikoko helbidea:
- Posta-helbidea:
- Harremanetarako telefonoa(k):

[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta bizkorren egin ahal izateko, lizitatuzailearen posta elektronikoa aukeratzea gomendatzen da lehentasunezko modu gisa, lizitatuzaileak berak adierazitako modua izateagatik erabat baliozkoa izango baita jakinarazpenen eraginetarako. Hala ere, beste lehentasunezko modu bat aukeratzea ere onartzen da. Ezer aukeratzeko ez bada, adierazitako egoitzara bidalitako posta ziurtatu bidez egingo da jakinarazpena.]



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

II. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

..... jaun edo andreak, helbidea eta
..... NAN zenbakia duenak, bere izenean edo helbidea eta
.....NAN edo IFZ duen-(r)en ordezkari gisa, bere
ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoz, DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAK
Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzuak
emateko deitutako lizitazioaren berri izanik.

ADIERAZTEN DU

Lehenik.- Konpromisoa hartzen duela Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Igeldo eta Altza) panteoiak
mantendu eta garbitzeko zerbitzuak emateko, urtebetez, eta ondoren epe hori beste bi urtez luza
litekeela.

Bigarrena.- Konpromisoa hartzen duela epe horretan zehar Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza
eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzuak emateko, unitate-prezio hauen truke:

Gertakizun jakin batengatik, panteoiaren garbiketa puntuala egitea:

- [Zenbakiz eta letraz adierazi] euro orduko, eta dagokion BEZ
gehitu beharko zaio, hots, [zenbakiz eta letraz adierazi] euro.

Panteoiaren aldizkako garbiketa:

- [Zenbakiz eta letraz adierazi] euro orduko, eta dagokion BEZ
gehitu beharko zaio, hots, [zenbakiz eta letraz adierazi] euro.

Hirugarrena.- Ezagutzen dituela Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Orria eta Preskripzio
Teknikoen Orria, bere egiten dituela espresuki, eta men egiten diela erabat.

Laugarrena.- Indarrean dagoen araudiak kontratu hau gauzatzeko eskatzen dituen eskakizun eta
betebehar guztiak betetzen dituela.

Bosgarrena.- Halaber, lan- eta zerga-alorrean indarrean dagoen araudia betetzera behartzen duela bere
burua.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

.....(e)n, 2012ko ko (a)ren(e)an.

Sinadura.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

III. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA

[...] entitateak (*mailegu-entitatearen edo elkarrekiko berme-baltzuaren izen soziala*), [...] IFZ eta [...] helbidea duenak (*jakinarazpen eta errekerimenduetarako*) eta, haren izenean [...]-(e)k (*ahaldunaren izen-abizenak*), pertsona honi edo hauei ABALA EMATEN DIE, dokumentu honen beheko aldean adierazten den botere-askiespenaren ondorioz egintza honetan haiek behartzeko nahikoa botere edukita: [...] (*abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala*), [...] IFZa duena, DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAREN aurrean, [...] euroraino (*hizkiz eta zenbakiz*), Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzua emateko kontratutik sor litezkeen betebeharrei erantzun ahal izateko.

Entitate abal-emaileak bere ardurapean adierazten du bete egiten dituela Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2 artikuluan aurreikusten diren betekizunak. Abala modu solidarioan ematen da, obligaziodun nagusiaren alde. Aldi berean, berariaz uko egiten zaio eskusio- eta banaketa-onurari eta konpromisoa hartzen da DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAREN lehenengo errekerimendua iritsi bezain laster ordaintzeko.

Abal hau indarrean egongo da DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAK hura ezeztatu edo itzultzea baimentzen duen arte.

Tokia eta data.

Entitatearen izen soziala.

Ahaldun(ar)en sinadura(k).



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEZKO DEKLARAZIOAREN EREDUA

.....jaun-andreak,
 helbidea,
 NAN zenbakia, telefonoa, eta
 e-mail helbidea duenak, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
 guztien jabe izanik, bere izenean edo
 helbidea eta
 NAN edo IFZ duen (pertsone fisiko edo juridikoa izatearen arabera)
(r)en ordezkari gisa,
 DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAK Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta
 Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzua emateko kontratatzeko lizitazioa deitu duela
 jakinik, hauxe

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA: Ez duela bateraezintasunik ez kontratatzeko debekurik, hain zuzen ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60.1 artikuluan eta alor horretan indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotzen direnak.

BIGARRENA: Zerga-alorrean eta Gizarte Segurantzarenean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 2012koren(e)an.

Sinadura:.....